

Proposamen didaktikoen ardatz nagusia ikasleei begira idatzitako “Jarraibideak” atalean kokatuta dagoen arren, irakasleak material eta aukera asko aurkituko ditu fitxetako oharretan proposamen bakoitza aberasteko eta egokitzeke. Izan ere, irakasleak nahi duena gehitzeko edo kentzeko askatasuna sentitu behar du, ezinbestekoa baita, gelara eraman aurretik, ikastaldearen ezaugarrien eta tokiko egoera soziolinguistikoen arabera hemen aurkituko dituen jarduerak egokitzea. Maila bakoitzean lau kategorietako bina proposamen izanik, irakasleak badu non aukeratu.

Beraz, irakasleei malgutasunez jokatzeko aholkatzen diegu, materiala norberaren beharren eta helburuen arabera moldatzeko eta egokitzeke. Komeni da, dena den, lau kategorietatik eskaintzea ikasleei: hiztuna, ingurune hurbila, kulturaren transmisioa eta hizkuntzen ekologia eta kontuan hartzea, bestalde, hizkuntzarekiko atxikimendua lantzeko hemen proposatutako jarduerak ikuspegi longitudinala dutela; hau da, mailaz maila osatzen eta aberasten doan lerroak osatzen dituztela. Hiztunaren kategorian, adibidez, laugarren mailako “*Interferentziak*” izeneko jarduerak bigarren mailako “*Euskaraz gabiltzalakoan*” osatzen du eta hirugarren mailako “*Hizkuntza Gorpuztu*” ariketak proposatzen duena “*Argazki Albuma*” jardueran sakontzen da.

Irakasleak egokitu beharko duen beste faktore bat denbora da. Edozein jarduerari sinplifikatu daiteke saio bakar batean gaiari buruzko lehen hurbilpen bat egiteko edo, aldiz, ikasturtean zehar gauzatzeko eta aberasteko proiektutzat hartu. Aipatutako “*Euskaraz gabiltzalakoan*” proposamen didaktikoa izan daiteke aukera ezberdin horien adibidea. Bestetik, saio batean interesgarria den materialen bat ikusteko denborarik gabe geratuz gero (jarduerari amaiera ematen dion kanta bat, esaterako), ideia ona izan daiteke hurrengo saio batean eskaintzea ikasleei, horrela, lehenengo saioan piztutako sentimenduen edo hausnarketaren oihartzun moduko bat lortuko dugu. Hori oso interesgarria da portaera eta motibazio kontuetan errepikapena oso garrantzitsua baita.

Bestalde, esan behar da hainbat material eta ariketa interesgarriak izan daitezkeela, adibidez, matematika, geografia edo ingeles irakasgaietan txertatzeko; garrantzitsua baita ahalik eta irakasle eta irakasgai gehien inplikatzeko euskararekiko atxikimendua elikatzeke lanean. Ikastetxe osoaren proiektua izateak eta, ondorioz, proposamen didaktikoak irakasle guztien artean lantzeak erraztuko dute helburua lortzea (ikusi: [“Ibilbideen ikuspegia”](#))

Azken ohar bat: fitxa bakoitzaren hasieran irakasleak berari zuzendutako azalpen labur-laburra aurkituko du. Proposamen didaktikoek atzean duten lanketa teorikoan sakondu nahi izanez gero, webgune honek irakasleentzat egokiak diren testuen eta materialen bilduma bat eskaintzen du [“Irakurgaiak”](#) atalean.